## **6.-LOPETEDI ETXEKO JARDUERA PROIEKTUA ETA OBRA EGITEKO BAIMEN ESKAERAREN BERRI EMAN ETA DAGOKIONA ERABAKITZEA .**

Heu Neu enpresak Lopetedi jauregian bere jarduera burutu ahal izateko jarduera proiektua aurkeztu du .Proiektu hau Daniele Canuti arkitektoak sinatua dago , eta horrekin batera, Herminio Nuin Vives ingeneri industrialak aurkeztutako instalazio elektrikoari dagokion eranskina ere aurkeztu da. Udaleko arkitektoak ondorengo txostena luzatu du .



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **TXOSTEN TEKNIKOA**

GAIA: Ekitaldiak antolatzeko eremua Lopetedi Jauregian.  
ESKATZAILEA: HEUNEU S.L., Agurtzane Garmendia  
DOKUMENTAZIOA: Obra barne hartzen duen Jarduera proiektua.

### **1**

## **Aurrekariak**

2019ko Irailak 10ean, HEUNEU S.-k Lopetegi Jauregian antolatu nahi dituen ekitaldiei buruzko Jarduera proiektua aurkeztu zen Baliarraingo Udalean. Proiektu honek, eraikina jarduerara egokitzeko egin beharko diren lanak zein diren ere aurre ikusten du.

Ondoren, instalakuntza elektrikoari buruzko proiektua ere aurkeztu zen. Proiektu honen egilea Herminio Nuin Vives ingeniari industrialak da.

### **2**

## **Prozedura eta kontrola**

Udalean aurkeztu den Jarduera Proiektua Daniele Canuti arkitektoak egindakoa da. Egitasmoak memoria, aurrekontua eta planoak ditu.

Planoetan besteak beste eraikinaren oinak, altxaerak eta ebakidurak ageri dira 1:75 eskalan.

Memoriak eraikinaren deskribapena, fatxada nagusiaren argazkia, jarduerari buruzko deskribapena, eta indarrean dagoen legediari buruzko justifikazioa egiten du besteak beste. Baina Udalean aurkeztu den Jarduera proiektuak ez dauka Baliarraingo Arau Subsidiarioen Errebisio dokumentuak dioena betetzen dela justifikatzen duen atalik.

### **3**

## **Araudi aplikagarria**

Lopetedi Jauregian ekitaldiak antolatu eta eraikina horretarako egokitzeko Baliarraingo Arau Subsidiarioen Errebisio dokumentuak dioena eta 2006ko uztailan argitaratutako Lurzoru legeak dioena bete beharko da besteak beste.

Baliarraingo Arau Subsidiarioen Errebisio dokumentuko "Baliarraingo gunea: Egitura Organiko Orokorra. Zonaztatze Orokorra" II.2 planoaren arabera, eraikuntza Hiri Lurzorua bezala sailkatutako eremuan dago, "A. Egoitzen zona" deritzon eremuan. Jarduera burutu nahi deneko eraikuntza finkatua dago.

Arau Subsidiarioetako 1.1.2 Atalak Hirigintza-erabileren erregimena arautzen du. Atal honetako 13. Artikuluak, erabilera globaleko zonetan eraikuntza eta erabilera-erregimen orokorra arautzen duenak, erabilera onargarri bezala definitzen ditu Hirugarren sektoreko erabilerak (maila guztietan dantzalekuak eta antzekoak izan ezik). Eta bestalde, 10.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

artikuluak, Hirigintza-erabileren tipifikazioa eta edukiari buruzkoak, 2. azpiatalean, hirugarren sektoreko erabilera-modalitateetako bat Aisialdi-erabilera dela definitzen du. Eta 2.d) azpiatalak honakoa aipatzen du:

*d)Aisialdi-erabileren barruan hainbat komunitate-adierazpen daude, titularitate pribatuko atsedeen- eta olgeta-denbora helburu dituztenak, bai helburuengatik eta baita irabazien erregimenengatik ere ezin direnak ekipamendu komunitariotzat jo.*

Aurkeztu den memorian Lopetedi Jauregian ekitaldiak antolatzen dituen jarduera burutu nahi dela adierazten da. Ekitaldi hauek nagusiki ezkontza, bataio eta sendotza-egunak dira. Ondorioz, planteatzen den erabilera ONARGARRIA da Baliarraingo Arau Subsidiarioen Errebisio dokumentuaren arabera.

Aurkeztu den Jarduera Proiektuko 1.4. atalak jarduera eta makineria deskribatzen ditu eta 1.5. atalaren arabera jarduera berri bat da.

Proiektuko 1.6. atalak indarrean dagoen araudiari buruzko justifikazioa egiten du. Eraikuntzaren Kode Teknikoa nola betetzen den aipatzen du. Zehazki Erabileraren Segurtasuna eta Irigarritasuna oinarritzko dokumentua eta Suteetatik Babesteko Segurtasuna oinarritzko dokumentua nola betetzen diren justifikatzen du, eta zenbait kasutan, hauek betetzen ez direnez, zein neurri zuzentzaile ezarri beharko liratekeen definitzen du. Atal batzuetan ordea, ez da garbi geratzen Eraikuntza Kode Teknikoak arautzen dituen baldintzak betetzen diren edo ez. Eta beste batzuetan, betetzen ez direla adierazten bada ere, ez da definitzen baldintza hauek bete ahal izateko zein obra edo jarduketa burutu beharko liratekeen. Ondorioz, Eraikuntzaren Kode Teknikoa betetzen dela eta nola betetzen den justifikatzen duen dokumentu berria aurkeztu beharko da Baliarraingo Udalean.

Bestalde, proiektuak ez du hirigintza justifikaziorik azaltzen. Ondorioz, Baliarraingo Arau Subsidiarioak ezartzeari dagozkion izaera orokorreko xedapenak betetzen direla justifikatu beharko du proiektuak.

Lopetedi Jauregian burutu nahi den jarduketa posible izateko zenbait obra beharrezkoak direla aipatzen du proiektuak eta horiei buruzko aurrekontua ere aurkeztu da. Zehazki barne arotzeria, kanpoko arotzerian babes elementuak jartzea, eta elektrizitate eta sutearen aurkako instalakuntzak eraberritzea planteatzen da. Egin nahi diren obra lan hauek ONARGARRIAK direla kontsideratzen da.

Proiektuko C.2 dokumentuko planoetan beheko solairuan komunak daudela adierazten da. Komun hauek egokitu berriak direnez, aurkeztuko den dokumentu berriak obra lan hauen legeztatzea ere hartu beharko du bere gain.

Bestalde, burutuko den jarduera ez da egongo 17/2009 Legearen ezarpen-eremutik salbuetsita, lege honetako 2.2 artikuluaaren arabera.

Azkenik, 7/2012 Legeak, Zerbitzu Direktibaren eraginez (2006/123/EE) EAEko zenbait lege aldatzen dituenak, 16 eta 17.artikuluetan, Azaroaren 10eko 4/1995 legea aldatzen du, Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituenak. Beraz, ondorengo artikuluetan xedatutakoa ere bete beharko da:



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

*16.artikulua.- Beste modu batean idatzita gelditzen dira Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak Arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 9. artikuluaen izenburua eta edukia, era honetara:*

*«9. artikulua.- Aurretiaz establezimendu-lizentzia behar izatea.*

*1.- Establezimendu-lizentzia beharko dute, funtzionatzen jarri aurretik, ikuskizunetarako edo jolas-jardueretarako lokal edo instalazio hauek:*

*a) Dantza-sala, dantzaleku, klub, diskoteka, disko-bar, karaoke, pub edo antzekoetarako establezimenduek.*

*b) Ostalaritza-establezimenduek, jatetxeek eta jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako beste establezimendu batzuek, baldin eta, betiere, honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:*

*-300 lagun edo gehiagorentzako tokia izatea.*

*-Lau ohmeko karga estandarerako 50 wattetik gorako potentzia efikaza duen musika-ekipoa izatea.*

*17. artikulua.- Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak Arautzen dituen azaroaren 10eko 4/1995 Legeari 9 bis artikulua gehitzen zaio, honela idatzita:*

*«9 bis artikulua.- Aurretiaz jakinarazpena egin behar izatea.*

*Aurreko artikuluan jasotzen ez diren ikuskizunen eta jolas- jardueren lokalek, ireki aurretik, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena egin beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak xedatutakoarekin bat etorrira».*

Zerbitzu-jarduetara libreki sartzeari eta haietan aritzeari buruzko, azaroaren 23ko, 17/2009 Legeko 7.1 artikuluan eta Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 62. artikuluan (apirilaren 23ko 7/2012 legeak sartutako aldaketak gogoan hartuta) xedatutakoaren arabera, jarduera hasi aurretik aurretiazko jakinarazpena aurkeztu behar da. Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da.

Komunikazioarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Memoria bat: jarduera deskribatu behar du eta jarduera horrek ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunetan eragin ditzakeen kalteak gutxitzeko ezarri diren neurriak azaldu.

- Eskumena daukan teknikariak emandako ziurtagiria, egiaztatzeko jarduera edota instalazioak bat datozela aurkeztutako proiektuarekin eta dokumentazio teknikoarekin, eta ondo betetzen dituztela ingurumenarekiko betebeharrak guztiak, baita, bete beharrekoak badira, ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotakoak ere.

## 4

## Ondorioak

Aurkeztu den Jarduketa Proiektuaren arabera, Lopetedi Jauregian burutu nahi den jarduketa posible izateko zenbait egokitzapen egin behar dira. Egokitzapen edo obra horiek onargarriak direla kontsideratzen da eta beraz, obren baimena eskuratzearen ALDEKO IRITZIA azaltzen da.

Behin obra hauek bukatuta daudenean, Eraikuntzaren Kode Teknikoa betetzen dela eta nola betetzen den justifikatzen duen dokumentu berria aurkeztu beharko da. Dokumentu



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

honek Baliarraingo Arau Subsidiarioak ezartzeari dagozkion izaera orokorreko xedapenak betetzen direla ere justifikatu beharko du.

Behe solairuko komunak egokitzeke egin diren obra lanen legeztatzea ere jaso beharko du aurkeztu beharreko dokumentuak.

Jarduera hasi aurretik aurretiazko jakinarazpena aurkeztu beharko da.

Aurretiazko jakinarazpenarekin batera eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da.

Guzti hau, beti ere alde batera utzirik txosten juridikoak dioena.

Idazkariak jakinarazten du , txosten honetan jasotzen dena , proiektuko arkitektoari hitzez adierazi zaiola .

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

Arkitektoaren txostenarekin bat egitea eta bertan jasotzen dena Heu Neu enpresari erabakiaren berri ematea .

## **7.-2020 URTERAKO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI .**

Idazkariak 2020 urterako aurrekontuaren zirriborroa mahairatu du , ahal bada , 2019 urtearen barruan onarpena eman ahal izateko .

Aurrekontuko gastuen ataleko laugarren eta seigarren kapituluko partidak zehatzago ikusi dira .

Oraingoz , aurrekontua mahai gainean uztea erabaki da eta aurrerako onarpena emateko geratu da .

## **8.-2019-44 DEKRETUA BERRONESTEA.**

Idazkariak , jakitera eman du , 2019/44 dekretua onartu duela alkateak . Hau da ,Goteo CCC ri , 200,00 euroko ekarpena egitea , aurrerantzean Baliarrainen egingo duten ekitaldia laguntzeko .

Mahaikideek jakinaren gainena geratu dira .

## **9.-ZENBAIT DIRU LAGUNTZA ESKAERA , BEHATOKIA, 28 KANALA, ARRATE IRRATIA , KORRIKA, GALTZAUNDI , ATARIA, BERTSOLARI ALDIZKARI HARPIDETZA .....**

Idazkariak jakitera eman du , urtean zehar hainbat erakunde pribatuetatik , euskararen inguruan , diru laguntza eskaerak jasotzen direla .



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Diru laguntza hauek aurrekontuan aurreikusi aurrez , erabaki bat hartzea komeni dela .

Mahaikideek gai honetan berriak izanik , jasotzen diren diru laguntza hauen xedea jakitea komeni dela eta informazioa emateko geratu da.

## **10.-GIPUZKOAKO UR KONTZORTZIOAREKIN ZIKLO INTEGRALA KUDEATZEKO GOMENDIOA FORMALIZATZEA ONARTZEA .**

Gipuzkoako urak-eko gerentea eta udaleko bi zinegotzi bildu ziren ,Baliarraingo uraren ziklo integrala gestioaren gomendioa egiteko akordioa sinatzeko .

Gipuzkoako urak eko gerenteak , gomendioaren akordioa jasotzen duen testua bidali du bi alderdiek sinatzeko . testuak honela dio :

BALIARRAINGO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO UR KONTZORTZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA URAREN ZIKLO INTEGRALA KUDEATZEKO GOMENDIO FORMALIZATZEN DUENA

BALIARRAINen, 2019ko azaroaren 26a .

### **BILDURIK**

Alde batetik, Olatz Peon Ormazabal andrea, duen herri-kargua dela eta bere xehetasun pertsonalak agertzeko beharrik ez duena.

Eta bestetik, Josu Ozaita Azpiroz jaunak , duen herri-kargua dela eta bere xehetasun pertsonalak agertzeko beharrik ez duena.

## **ESKU HARTZEN DUTE**



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOAN)

Olatz Peon Ormazabal Andreak, GIPUZKOAKO UR-KONTSORTZIOAREN izenean, joan den 1998ko otsailaren 20ko GAOean argitaratu ziren erakundearen Estatutuek diotenaren arabera duen ordezkaritza erabiliz.

Josu Ozaita Azpiroz, BALIARRAINgo udal Gorenaren izenean, Alkate-Lehendakaria izanik eta joan den 2019eko azaroaren 19ean egin zen Udal-Korporazioaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren arabera egintza honetarako baimendua izan denak. Aipatutako erabakiaren ziurtagiria Udaleko Idazkariak izenpetuta hitzarmen honi eransten zaio

## XEHETASUNAK

**Lehenengo.-**Gipuzkoako Ur-Kontsortzioa Gipuzkoako hainbat udalek –horien artean BALIARRAIN– eratu duten elkarte-oinarria duen zuzenbide publikoko erakundea da. Honako hau da erakunde horren xedea: *“sare primarioetan saneamendua eta ura hornitzeko azpiegituraren ezarrera eta ustiapena eta dagozkion zerbitzuak prestatzea, guzti hori baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiaren arabera”*. Estatutuetako xedapen horren arabera, Kontsortzioak BALIARRAINgo udalerrian saneamendua eta ur-horniduraren “goiko” sarearen zerbitzu publikoa kudeatzen du.

**Bigarren.-**Kontsortzioaren Estatutuen 7.2. artikulua honela dio: *“hala erabakiko denean, Kontsortzioak ur-zikloaren helburuak zabal ditzake, interesa duten udalekin ados jarrita eta haiekin dagoen hitzarmena izenpetu ondoren”*. Kontsortzioko Batzar Nagusiak joan den 2000ko abenduaren 21ean egin zuen bileran hartu zuen erabaki hori.

Era berean, Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legeak, Udalek, horrela nahi dutenean, Hornidurako eta Saneamenduko Zerbitzua modu Kontsortzian eman dezaketela ezartzen du.

**Hirugarren.-** GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA toki-erakunde den aldetik, zerbitzu publikoak prestatzeko modu desberdinak erabil ditzake, beti ere, lege xedapenen arabera – Toki-Jaurbidearen gaietan indarrean dauden lege-xedapenen eraberritutako Testuaren 110.5. art.– eta estatutuetako xedapenen arabera –9. art.–. Zentzu horretan eta bere zerbitzuak kudeatzeko GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK kapital erabat publikoaz osatuta dagoen sozietate anonimoa du eratuta: GIPUZKOAKO URAK E.A.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOAK)

**Laugarren.-**BALIARRAINgo udalak interes handia du URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa, bi sareen kudeaketa sartuz, “goia” eta “behea”, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN eskuan jarraitzea, Gipuzkoako Urak, E.A.-ren bitartez.

Beraz, beharrezko lege eta jardutze-ahalmena ezagutzen diote elkarri eta HITZARMEN hau KUDEATZEKO GOMENDIOA formalizatzen duena, izenpetzea erabaki dute ondorengo atalen arabera.

## ATALAK

**Lehenengoa.-**BALIARRAINgo udalak, hitzarmen honen ondorioz eta *Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legearen* arabera, URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku, Gipuzkoako Urak, E.A.-ren bitartez, uztea erabakitzen du, honek hornidura eta saneamenduko “goiko” eta “beheko” sareen kudeaketa barnean hartzen ditu, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere. Horretarako, BALIARRAINgo Udalak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI emakida, emarien ustiapenak, azterlanak, proiektuak, sareak eta instalazioak eta kontsortziotatutako zerbitzuak emateko gainontzeko baliabide guztiak ematea erabakitzen du.

**Bigarrena.-** BALIARRAINgo Udalak, zuzenbide-ordenamenduak horretarako bidea ematen duen heinean, berak dituen aginpide, eskuduntza, eskumen, ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiak, zerbitzuak eta bere xede eta jomuga diren helburuak ematearekin zerikusia dutenak GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku uztea erabakitzen du.

**Hirugarrena.-**BALIARRAINgo Udalak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK aurkeztutako azterlan ekonomikoa onartzea erabakitzen du, hitzarmen honi erantsitakoa.

**Laugarrena.-** GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK BALIARRAINgo udalerriko URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa 2020ko urtarrilak 1etik aurrera bere gain hartuko du.

**Bosgarrena.-**Gomendio honek gutxienez 10 urteko iraupena izango du. Epe hori pasa ondoren, Udalak erabaki dezake, bere kasuan, zuzenbide-ordenamenduak une bakoitzean bide ematen dion heinean beste edozein modutara zerbitzua ematea, horretarako dagozkion erabakiak hartuz eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkion urratsak emanez, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI sei hilabete LEHENAGO jakin araziz.





BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Behin hasierako 10 urteko epealdia pasa ondoren, aurreko zatian aurreikusitako berarizko uko egitea ematen ez bada, gomendioa luzatuta ulertuko da Udalak, bere kasuan, zuzenbide-juridikoak ematen dizkion eskumenaz baliatuz, zerbitzua beste modu batetara ematea erabakitzen duen arte. Hala eta guztiz ere, Udalak, bere kasuan, zerbitzua kontsortziatu eran ematea deuseztearabakiko balu, deuseztapena baino lehen, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI ordaindu beharko zaio, zenbatekoa kalkulatu da hartuaz Kontsortzioak udalerrian egindako inbertsioak eta berrikuntzak eta BALIARRAINgo Udalari emandako konpuruak ken Kontsortzioak BALIARRAINn inbertsio eta berrikuntzarako jasotako kopuruak. Kontrakoa gertatuko balitz, aipatutako kopurua GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK BALIARRAINgo Udalari ordaindu beharko dio.

**Seigarrena.-**Zerbitzuaren tasak eta prezioak, baita udalerriko abonatuari aplikagarri diren ordenantzak, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN proposamenez bere egunean BALIARRAINgo Udalak onartutakoak GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOKO Batzar Nagusiak urtero eguneratuko ditu, aipatutako tasen tarifa-egitura aldatu gabe.

**Zazpigarrena.-**GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK BALIARRAINgo Udalari bermatzen dio, hitzarmen honen bitartez bere gain hartutako kudeaketagatik abonatuari eta bezeroari doakien edozein informazioari buruzko konfidentzialtasuna eta isilpekotasuna bere langileek gordeko dutela, eta batez ere, Norberaren Datuak Babesteko, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak babestutakoak direnean, datu horietara zuzenki edo zeharka sarbidea dutenean edo kontratatutako zerbitzuaren ondorioz ezagutzen dituztenean, zein hitzarmen honek irauten duen bitartean zein hitzarmena bukatutakoan.

**Zortzigarrena.-** Hitzarmenak izaera administratiboa du eta haren sorrera, ulerkuntza, aldaketa edo suntsiarazpenaren inguruan sor litezkeen arazoak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean konponduko dira.

Eta guztiarekin bat datozela agertzeko, Hitzarmen hau izenpetu egiten dute, bi aletan eta ondorio batetarako, esandako egunean eta tokian.

BALIARRAINen 2019eko azaroaren 26ean

**Izenp.: Olatz Peon Ormazabal And.**  
**Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Lehendakaria**

**Izenp.: Josu Ozaita Azpiroz**  
**BALIARRAINgo Alkate-Lehendakaria**

Gomendio honetaz gain , ondorengo akordioak ere onartu dira :

### AKORDIOAK

1-2020eko urtarrilaren 1 etik aurrera ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren bidez ematen jarraitzeko erabakia hartzea.

Hain zuzen, Baliarraingo Udala Kontsortzio horretako kide da. Kontsortzioak Gipuzkoako Urak SA sozietatearen bidez emango luke zerbitzu hori. Zerbitzu horren barruan sartzen dira altako eta bajako sareen kudeaketa, bai uraren hornidurari dagokionez, bai saneamenduari dagokionez ere, bai eta egin beharreko inbertsioak eta hobekuntzak egitea ere.

2.-Uraren ziklo integralaren kudeaketarako sinatu beharreko gomendioaren testua onartzea, eta, gomendio horren bidez ,Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea uraren ziklo integralaren kudeaketa, likidazioa, tasen bilketa eta prezioak(zaborra ere sartu ahal izango da bertan).

3.- Kontsumo –tarreak etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren menpekoan izango direla eta pertsonarik erroldatuta ez dagoen etxebizitzaren kasuan, kontsumo guztiari aplikatuko zaion prezioa, goiko tartekoa izango dela.

4- Udaleko alkate-udal buruari ahalmena ematea Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin gomendioa sinatzeko, uraren ziklo integrala kudeatzeko.

**Mahaikideek ERABAKI DUTE :**

LEHENA.-Gipuzkoako ur kontsortzioari beste hamar urteetarako ziklo integralaren kudeaketa gomendioa ematea .

BIGARRENA.-2020 eko urtarrilaren 1etik aurrera kontsumoaren prezioa bertan bizi diren kopurua kontutan hartuaz aplikatuko da , ur erabilera jasangarria egitearen alde.

HIRUGARRENA.-Alkatea baimentzea , gomendio akordioa sinatzeko .

## **11.-GALDERAK ETA ESKAERAK.**

**BAT.-Peñaskal hitzarmena .-** Peñaskal elkarteak , laguntza teknikoak eskaintzeko dituela eta Baliarraingo herritarrek laguntza tekniko horietaz gozatzeko aukera izan dezaten hitzarmena sinatzea proposatu da .  
Hitzarmenak hitzez hitz honela dio :

### LAGUNTZA TEKNIKOAK UZTEKO UDAL- PROGRAMA

(Peñaskal Kooperatiba)

**LANKIDETZA-HITZARMENA - 2019.**

**URTEA**

Tolosan, 2019ko urriaren 11

### BILDU DIRA

Baliarraingo Alkatea, Josu Ozaita Azpiroz alkatea, Baliarraingo Udalaren izenean. Eta,

Tolosako alkatea, Olatz Peon Ormazabal, Tolosako Udalaren izenean jardunez.

### ADIERAZI DUTE

1) Tolosako Udalak, Tolosaldeko gainerako herrien onarpenarekin, erabaki zuen 2016. urtean hitzarmen bat sinatzea Peñaskal Kooperatibarekin, ordurarte prekarioan ematen ari zen Laguntza



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Teknikoan Zerbitzua kudeatzeko. (Ikusieranskina)

Hain zuzen ere, udal hauek aspaldidanik ari ziren laguntza-produktuen zerbitzua ematen modu prekarioan, zenbait pertsonen, gehiago behar ez dituztelako, emandako produktuez baliatuta. Zerbitzu hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuduntza izanik ere, errealitateak dio eskaera egiten denetik laguntza jaso arteko prozedura luze joan ohi dela, oinarritzko gizarte zerbitzuetan oharitzen gara zenbait egoeretan berehalako erantzuna behar izaten dutela herritarrek: ospitaleko altak, ustekabeen eta bat-batean gertatutako mendekotasunak (iktusak, istripuak...) eta horien antzeko egoeren larritasunaren aurrean, esaterako.

2) Programa honen bidez, udalak, Aldundiko prozesuak irauten duen artean berehalako bitarteko-erantzuna emateko modua egiten digu. Hau da, zerbitzu honen bidez lortzen dugu, harik eta Aldundiak eskaerak ebatzi eta produktuak eman arte, pertsona horiei arreta beren etxean ematea.

3) Hitzarmen honi esker, lortu da laguntza-produktuen biltegi bakarra izatea, mantentze egokia ematea produktuei, garbitasun irizpideak bermatzea eskualdaketa bakoitzean, eta erantzukizun zibileko estaldura; eta hori guztia, egoera larriek eskatzen duten azkartasunarekin eta erantzun profesionalarekin landuta.

4) Azpimarratzekoa da, garai horretan erabaki zela Peñascal Kooperatibarekin egitea hitzarmena, kontuan harturik bere lan-prestakuntzako jarduera, eta, zehatzago, bere Eguneko Zentroko eta gizarteratze-enpresako jarduera. Alde batetik, argi zegoelako entitate honek zerbitzu hau eman zezakeela hurbiltasunez eta kalitatez, eta beste alde batetik, zerbitzu honen bidez elkarrekin bazuelako aukera jarduera berriak jorrazteko bere ikasle-langileekin, alegia, baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden kolektiboekin. Gainera, kooperatiba honek Tolosan dituen instalazioek aukera ematen diote laguntza- produktu ugari biltegitratzeko, eta metal-arloko prestakuntza egiten dutenez, badute beharrezko materiala produktu horien mantenua egiteko.

5) Hitzarmen hori 2016ko martxoaren 14ean sinatu zuen Tolosako Udalak, eta abenduaren 31rarteko iraupena zuen. Dena den, beste bi urtez luzatzeko aukera ematen zuen, urtetik urtera hala erabakita, eta kontratu txikientzako ezarritako kantitatea inolaz ere ez duela gaintutako zehaztuta. Zerbitzu hau eskualde mailakoa zen eta 2018 urtean agortu zen azken luzapena egiteko aukera.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

- 6) Hitzarmenak iraun duen artean, Peñascal kooperatibak eman duen zerbitzuaren kudeaketa oso egokia izan da; bere eraginkortasuna eta kalitatea nabarmen handitu dira.
- 7) Zerbitzu honen beharra izaten jarraitzen dute herritarrek, larrialdi egoerei bat-bateko erantzuna ematea eta arreta eta zaintza-lanak erraztea lortzen baita.

## BERAZ, BI ORDEZKARIEK ONDORENGOA HITZARTU DUTE:

**Lehenengoa:** **Baliarraingo** Udalak baimentzen duela Tolosako Udalaren ordezkaria den Olatz Peon Ormazabal, Peñaskal kooperatibarekin kontratua txikia egiteko, honek Laguntza Teknikoen zerbitzua ematen jarraitu dezan.

Kontratu honen iraupena izango da 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31erartekoa.

**Bigarrena:** **Baliarraingo** Udalak, hitzarmen hau egin zenean adostutako proportzioan ordainduko duela dagokion kuota, udalerrri bakoitzeko biztanleen arabera kalkulatu zena.

**Hirugarrena:** Ekarpenak egiteko prozedura honako hau izango da:

Behin lankidetzat hitzarmen hau sinatu ondoren, Tolosako Udalak egingo du kontratu txikia eta koordinatuko da Peñascal Kooperatibarekin programa aurrera ematen jarraitu dezan.

Tolosako udalak egingo ditu dagozkion hiruhileko kuoten ordainketak eta programaren jarraipenak. Era berean, puntualki, eta hala behar denean, egingo dira dagozkien udaletako teknikariek beharrezko koordinaketak.

Zerbitzurako bideraketak, herri bakoitzeko gizarte langileak egingo ditu zuzenean Peñascal Kooperatibara, dagokion txostenaren bidez.

Urte amaieran, Tolosako Udalak egingo du zerbitzuaren mantenuak eragindako gastuen zerrenda, eta programan parte hartzen duen herri bakoitzari eskatuko dio espresuki dagokion ordainketa egiteko.

**Laugarrena:** Peñascal kooperatibak eman beharreko zerbitzua hiru ataletan banatuko da:

- 1.- Biltegiatzea, kontrola, garbiketa eta prebentziozko mantentzea. Laguntza-produktuen inbentario informatizatua, erabileraren eta laguntza-produktuen zerrendaren inguruko urteroko memoria udalei, laguntza-produktuen prebentziozko mantentzea, gainbegiratzea, mekanismo eta engranajeak doitztea, artikulazioak koipeztatzea eta laguntza-produktuen garbiketa orokorra.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Era berean, PEÑASCAL S. COOP.ek Erantzukizun Zibileko aseguru bat edukiko du estaltzeko elementuen egoeraren ondorioz erabiltzaileei sor dakiekeen edozein ezbehar.

Zerbitzu honen kostua da 400 €/hileko; %21 BEZarekin, 484€/hileko.

2.- Mantentzea eta konponketa bereziak. Elementuren batek esku-hartze berezia behar duenean, PEÑASCAL S.COOPek hornitzaile egokia bilatuko du eta TOLOSAKO UDALARI jakinaraziko dio. Honek onartu ostean, PEÑASCAL S.COOP arduratuko da balorazioa egiteaz, teknikariak bilatzeaz, zerbitzua enkargatzeaz eta ordaintzeaz, eta ongoren kostu hori fakturatuko dio TOLOSAKO UDALARI.

3.- Etxera eramateko zerbitzua. Laguntza-produktuak PEÑASCAL S.COOPeko biltegian jaso edo entregatu ahal izango dira, edo, bestela, PEÑASCAL S.COOPek etxera eramateko zerbitzua eskainiko du ondoko tarifa hauek aplikatuta.

- Tolosa..... 25,00 €
- Asteasu .....40,00 €
- Berastegi..... 40,00 €
- Tolosaldeko besteak.....35,00 €

(Tarifa hau eskatzaile bakoitzari aplikatuko zaio, eta Udal bakoitzak erabakiko du erabiltzaileak ordaindu beharko duen ala udalak bere gain hartuko duen. Dena den, ohiko fakturaziotik kanpo geratuko da kontzeptu hau.)

**Bosgarrena:** Konpromisoa hartutako ordainketa hori egiteko epearen gehieneko iraupena 2020ko urtarrilaren 31ra bitartekoa izangoda.

**Seigarrena:** Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta Sektore Publikoko araubideari buruzko urriaren 1eko 40/2015 legearen 47. eta hurrengo artikuluek arautuko dute.

**Zazpigarrena:** 2019 urtean zehar zerbitzu hau aztertuko da eskualde mailan, eta hala erabakitzen bada, indarrean dagoen araudiarekin zerbitzu-kontratua izapidetzeko bidea egingo da.

Hala jasota gera dadin, kontratugileek agiri honetan adierazitakoa berretsi eta dokumentu hau eta bere kopia sinatu egin dituzte Tolosan, adierazitako egunean.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

TOLOSAKO ALKATEA

BALIARRAINGO ALKATEA



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Olatz Peon Ormazabal

Josu Ozaita Azpiroz

Nire aurrean,

IDAZKARIA  
Begoña Garmendia Vazquez

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.-Hitzarmena sinatzea 2019 urterako .
- 2.-Alkatea baimentzea hitzarmena sinatzeko

**BI.-Miren Garmendia , udal langilearen eginkizunak .**

Korporazio kideek , Miren Garmendiaren lanak zehaztea eskatu dute .  
Idazkariak adierazi du , lan horien zerrenda jaso dagoela eta helaraziko zaiela.

**HIRU.-Piero , Hamma eta Ivakin bilera egitea euskara ikastaroaren inguruan .**

Baliarraingo udalak euskara ikasteko interesa zegoen jakiteko ahozko galdeketa bat egin zuen . Galdeketaren ondoren , interesatuak hiru agertu ziren .  
Hiru herritar interesatuak egotea egoki ikusi zen , eta ahal den heinean beraiekin bildu eta zerbait eskaintzea pentsatu zen .

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen alkateak 22:20 etan .

Alkateak

Idazkariak